



## Prensa oharra

Barakaldon, 2019ko maiatzaren 6an

# 16 emakume argazkilarik Barakaldoko kaleak hartuko dituzte, gaur abiatu eta maiatzaren 31ra arte iraungo duen IV. BAFEST jaialdian

- Barakaldoko Argazki Jaialdiak, gai librearekin, lehiaketara aurkeztutako 10 emakume argazkilarik izango dituen “Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketa” eta, Miren Pastor komisario dela, beste 6 emakume argazkilariren fokuen bitartez “Zein da nire lekua?” gaiari buruzko gogoeta egingo duen “Sekzio Nagusia” jasoko ditu.
- Jende guztiari zuzendutako doako jarduera paralelo programazioak osatuko du aurtengo edizioaren eskaintza, horien artean, maiatzaren 12ko “Txikifoto Familia Eguna” eta maiatzaren 18ko bisita gidatu herrikoiak.

Barakaldoko Udalak antolatzen duen Barakaldoko BAFEST Argazki Jaialdiaren IV. Edizioa gaur abiatuko da, formatu handiko hiriko argazkigintza jaialdiaren xehetasun guztiekin. Herritar guztiei zuzenduta dagoen arren, protagonistak emakume argazkilariak dira. BAFEST 2019, lehiaketara aurkeztu diren 10 emakume argazkilarik parte hartuko duten “Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien Lehiaketak” eta Miren Pastor komisario duela, beste 6 emakume argazkilariren fokuen bitartez “Zein da nire lekua?” gaiari buruzko gogoeta egingo duen “Sekzio Nagusiak” osatuko dute.



## **Prensa oharra**

**“Sekzio Nagusiko” 6 partaideak hauek dira:** Laura C. Vela, Bernardita Morello eta Carol Caicedo, Miren Pastor komisario dela; Ura Iturralde, “Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren emakume argazkilarien 2018ko Lehiaketaren” irabazlea (bere erakusketa urtarrilaren 24an aurkeztu zen); Cris P. Lareo; eta Victoria Adame.

**“Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketaren” 10 finalistak hauek dira:** Aitziber Orkologa, Eider Moreno, Eli Garmendia, Esther Camacho, Izaskun Luengas, Lola Guerricaechebarria, Miriam Prado, Oihana Garitano, Reyes Sedano eta Rocío López. Aurtengo Jaialdiak 50 proposamen baino gehiago jaso ditu.

### **Erakusketak egongo diren gunek hauek dira:**

- Bide Onera plaza (“Sekzio Nagusia”, 3 artista)
- Foruen Pasealekua (“Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketa”, 10 artista)
- Hizkuntza Eskola (Ura Iturralde)
- San Bizente parkea, San Eloy ospitalearen aurrean (Cris P. Lareo)
- Landaburu plaza (Victoria Adame. Ekintza hori puntuala izango da, maiatzaren 10ean bakarrik, 21:30ean).

### **BAFFEST 2019ko doako jarduera eta ekintza osagarriak:**

-Ostirala, maiatzak 10, 21:30ean, Landaburu plazan: “Poética de lo efímero”. Victoria Adameren zenbait irudi proiektatuko dira, herriko Mikel Alvira idazlearen testuek lagunduta.

-Igandea, maiatzak 12, 11:30ean, San Bizente parkean (San Eloy ospitalearen aurrean): “Txikifoto Familia Eguna”, familia osoari zuzendutako jarduera, “Mamuta” edo argazki kamera erraldoia, Txikifoto Dantzan, umeentzako tailerrak, argazki tailerrak, Trakamatraka, Argazki Solidarioa...



## Prensa oharra

-Ostirala, maiatzak 17, 18:00etan, Gizarteratze Zentroan (CIS): Miren Pastorrek zuzendutako Masterclass, Gabriela Cendoya bildumazalearen eta Daniel Rodríguez editorearen presentziarekin. Plaza mugatuak, aurretik izena emanda ([info@baffest.com](mailto:info@baffest.com)).

-Larunbata, maiatzak 18, BAFEST ARGAZKI EGUNA: Bisita gidatu herrikoia goizez, 12:00etan, Bide Onera plazan, hauen presentziarekin: Roberto Villalón (2019ko “Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketaren” epaimahaiko kidea eta BAFEST 2018ko komisarioa), Miren Pastor, eta Laura C. Vela eta Carol Caicedo egileak. 2019ko Jaialdiko emakume argazkilari finalistak ere egongo dira.

17:30ean, Barakaldoko CISeko auditorioan, Baffest 2019ko sekzio nagusiko lanen aurkezpena.

19:00etan, sariaren banaketa 2019ko “Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari diren euskal emakume argazkilarien Lehiaketaren” irabazleari. 10 finalistetatik, BAFEST 2020ko “Sekzio Nagusian” lekua izango duen irabazlea aukeratuko da.

## Lituratura arloko ezustea, Laura C. Velaren eskutik

Barakaldoko Udalak antolatuta gaur hasi den BAFEST Argazki Jaialdiaren IV. Edizioa, bat etorriko da “Como la casa es mía”, Laura C. Velaren lehenengo argitalpenaren (argazki-liburua), aurkezpenarekin. Literatura arloko bere lehenengo lana da. Velak, Xirou Xiaoren eta Laura C. Vela argazkilariaren arteko topaketa kontatzen du, hiri berean bizi diren eta helburu bera duten kultura desberdinetako bi emakume gazteren arteko topaketa: euren lekua aurkitzea eta etxea osatzea.

Liburua, protagonistaren, etorkin txinatarraren, barrualdera egiten den bidea da. Hiru urte eta erdiz, Laura Xirourekin ondoan aritu da, munduan egoteko modu baten bilaketan, etengabe egokitzen ari den nortasuna eraikiz. Testuinguru berriaren aitortzea, hartzeko jarrera eta lasaitasuna, bilaketa pertsonalaren eta bien artean eraikitzen den kulturen arteko adiskidetasunaren zutabe bilakatzen



## **Prensa oharra**

dira. Handitu eta eraiki nahiko luketen babeslekua, alderdi unibertsaletik eta partikularretik.

[www.baffest.com](http://www.baffest.com)

[www.facebook.com/baffest](https://www.facebook.com/baffest)

[www.twitter.com/baffest\\_eus](https://www.twitter.com/baffest_eus)

[www.instagram.com/baffest.eus](https://www.instagram.com/baffest.eus)

### **Prensa:**

Ainhoa Gondra (+34) 678 806 527

[gondra@biokcomunicacion.com](mailto:gondra@biokcomunicacion.com)

Tamara de la Rosa (+34) 616 921 768

[tdelarosa@barakaldo.org](mailto:tdelarosa@barakaldo.org)